



ALDEZ AURREKO KONTSULTA, IRAILAREN 20KO 18/2017 FORU ARAUARI, ARABAKO ZERGA SISTEMA EUSKAL ZUZENBIDE ZIBILARI EGOKITZEN DIONARI, HAINBAT ZERGA ARAUTEGI EGOKITZEKO FORU ARAU PROIEKTUAZ.

Maiatzaren 23ko 29/2017 Foru Dekretuaren, xedapen orokorrak egiteko prozedura eta araugintza teknikari buruzko jarraibideak onartzen dituenaren, I. eranskineko 9. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, eta xedapen arauemaileak prestatzeko prozeduran herritarren parte hartzea hobetzeko helburuarekin, goiburuan aipatutako aurreproiektua/proiektua prestatu aurretik kontsulta publikoa egin behar da; kontsulta horretan iritzia azaltzeko eskatu behar zaie etorkizuneko arauaren eragina jaso lezaketen herritarrei eta ordezkagarritasun handieneko erakundeei, honako gai hauek direla eta:

- a) Ekimenaren bidez konpondu nahi diren arazoak,
- b) Onartu nahi den arauaren beharra eta egokitasuna,
- c) arauaren helburuak,
- d) Ordezko konponbideak, araugintzazkoak zein araugintzaz bestekoak.

Aurrekoa betez, honako kontsulta hau planteatzen da, beren iritzia eskatzeko irailaren 20ko 18/2017 Foru Arauari, Arabako zerga sistema euskal zuzenbide zibilari egokitzen dionari, hainbat zerga arautegi egokitu behar dizkion etorkizuneko xedapenaren eragina jaso lezaketen herritarrei eta antolakunde ordezkatzailaiei.

Herritar, erakunde zein elkarteek, egokia baderitzote, galdera sorta honetan planteatutako alderdiei buruz duten iritzia adierazi ahal izango dute, **2017ko abenduaren 26ra arte**, *aurrezkontsultak@araba.eus helbide elektronikoko postontziaren bidez*.

AURREKARIAK	5/2015 Legea, ekainaren 25ekoa, euskal zuzenbide zibilarena. 18/2017 Foru Araua, irailaren 20koa, Arabako zerga sistema euskal zuzenbide zibilari egokitzen diona.
--------------------	---



KONPONDU NAHI DIREN ARAZOAK	<p>Irailaren 20ko 18/2017 Foru Arauak, Arabako zerga sistema euskal zuzenbide zibilari egokitzen dionak, Arabako Lurralde Historikoko zerga sistemako tributuei eransten dizkie euskal zuzenbide zibilaren arautze berriak dituen berezitasunak.</p> <p>Foru dekretu honek aldaketa horietara moldatzen ditu hainbat zerga arautegi.</p>
HURA ONARTZEKO BEHARRA ETA EGOKITASUNA	<p>Beharrezkoa da 18/2017 Foru Arauak egokitutako zerga arauak arautegi bidez garatzea.</p>
HELBURUAK	<p>Zerga arautegiak moldatzea aldatutako zerga arloko foru arauetara.</p>
ORDEZKO KONPONBIDEAK, ARAUGINTZAZKOAK ZEIN ARAUGINTZAZ BESTEKOAK	<p>Ez dago aukera egokiagorik.</p>